

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Gidabaimena euskaraz prestatu eta lortzeko dirulaguntzak 2020. BDNS (Identif.): 533376.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/533376>):

Jakitera ematen da Udaleko Gobernu Batzordeak, 2020ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, onartu egin duela gidabaimena euskaraz prestatu eta lortzeko 2020rako diru-laguntzen deialdia. Hori dela eta, jendaurrean jartzen da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Bermeon, 2020ko azaroaren 13an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense